


W.S. Burroughsen heriotzarekin, 'beat' belaunaldiak azken ordezkaria galdu du

Ginsberg eta Kerouacekin 'underground' literaturako hirukotea osatzen zuen

Heriotzak 'beat' belaunaldiaren azken ordezkaria, William S. Burroughs, eraman du. Missouriiko idazlea larunbat gauean hil zen Kansasko ospitale batean, bihotzekoak jota. Burroughsek 83 urte zituen, eta orain dela 16tik ez zuen ezer idazten, berak esan zuenez, kontatzeko ezer ez baitzeukan.



William S. Burroughs.

Erredakzioa / Donostia

LARUNBAT gauean hil zen William Seward Burroughs idazlea, Kansasko ospitale batean. Osasun ona zuen arren, bihotzeko batek eraman zuen *beat* mugimenduko ordezkari nagusia. Mugimendua zeintzuek osatzen zuten eztabaidagarria den arren, esan daiteke Ginsberg, Kerouac eta Burroughs zirela *underground* literaturaren hiru erpin nagusiak. Burroughsek ez zuen sekula bere homosexualitatea eta drogetarako joera ezkatatu, eta joera horiek, hasieran behintzat, ezagunagoa egin zuten idatzitako lanek baino.

1953an argitaratu zuen lehen liburua, William Lee izenordearekin. Kazetaritza estiloa gordez, drogekin izan zituen esperientziak kontatu zituen liburuan, hortik nobelaren izenburua: *Junkie*. Baina bigarren liburua izan zuen arrakasta handien. *Naked lunch* liburuak ere drogekin zerikusi handia zuen, baina, idazleak berak adierazi zuen bezala, askoz ere poetikoagoa zen: «*Junkie* idatzi nuenean drogak hartzean zer sentitzen den gogoratu eta azaltzea nuen helburu, kazetari baten ikuspuntura gerturatzu. Baina *Naked lunch* idaztea askoz proiektu handizaleagoa izan zen». Liburu horrek eman zion hasiera, neurri handi batean, *underground* literaturari, eta 1991n liburuan oinarritutako filme bat grabatu zen.

William Seward Burroughs Saint Louisen, Missourian, jaio zen 1914ko otsailaren 5ean. Hiri-

ko auzo aberatsenean jaio zen, familia oneko semea zen beraz; ama EEBBetako hegoaldeko aristokraziakoa zen jatorriz, eta aita industria gizon handia. Ikasketak ere goi mailakoak izan zituen, 1936an Harvardeko Unibertsitatean graduatu baitzen arte batxiler gisa. Handik Europara jo zuen: Vienan sei hilabetetan medikuntza ikasketak egiten aritu zen, eta gero kontinentean zehar ibili zen, alde batetik bestera. 1938an EEBBetara itzultzen, eta hainbat lanbidetan aritu zen: detektibe, kamarero, intsektu garbitzaile eta abar izan zen.

Emaztea istripuz hil ondoren piztu zitzaion idazteko grina • Burroughs ez zen idazten hasi 1951. urtean emaztea nahigabe hil zuen arte. Joan Vollmer eta Burroughs Mexikon bizi ziren urte haietan, idazlea haluzinoge-

noak hartzen zebilen garai hartan. Emaztea, berriz, benzedrinazalea zen. Emaztearen buru gainean jarritako edalontzi bati egin zion tiro Burroughsek, baina, zoritxarrez, emaztearen bekokia harrapatu eta hil egin zuen. Horren ondoren hasi zen Burroughs idazten, eta 1953an atera zuen pisuzko lehen nobela.

Burroughsek 1944an ezagutu zituen *beat* belaunaldiko idazle nagusi bi, Ginsberg eta Kerouac hain zuzen. Burroughsen nortasunak liluratuta utzi zituen biak, eta 1945etik Kerouac eta belaunaldi bereko beste zenbait lagun New Yorken bizi izan ziren harekin. Burroughsen mundu ikuspegiak ez zuen boteririk onartzen. Haren ustez, historian ez da iraultzarik gertatu, boterearen esku-aldatzeak baizik, boterea bera mantendu egin da beti. Bide

politikoek ez dute balio egoerari irtenbidea emateko, eta bi irtenbide alternatibo proposatzen zituen: gazteen mugimendu gogorra batetik, *Flower power* delakoaren bakezaletasuna gaitzetsi egiten zuen; eta gizakiaren aldaketa biologikoa bestetik, mutazioa, desalienazioa lortzeko bide gisa. Beraz, 50-60ko hamarkadeetako kontrakultura edo mugimendu alternatiboen oinarrian koka dezakegu.

Burroughsen lan literarioen artean ondorengoak ditugu aipagarrienak: *Junkie*, *Naked Lunch*, *The Soft Machine*, *Nova Express*, *The Yage Letters* eta *Exterminator*. Euskarara ez da haren lan bat bera ere itzuli, baina *Susa* literatur aldizkariako 27. alean *Nova Express* lanaren zati bat aurki daiteke euskaratuta, *EGUNKARIA*-ko kazetari Juan Luis Zabala idazleak itzulia.

Ez lotsarik, ez begirunerik, ez mugarik

• JUAN LUIS ZABALA •

eta mugarik gabekoa izan baitzen haren jokamoldea, *The soft machine*, *The ticket that exploded* eta *Nova Express* -ek osatzen duten trilogia haluzinagarrian bereziki. Baina etsi gabe aurrera jarraitzeak badu saririk Burroughsen literaturaren irakurketan. Helduleku logiko eta

finkoetan urriak izanagatik ere, aspertzeko beldur handirik gabe irakurtzekoak dira, esate baterako, *Naked lunch* eta *Exterminator!*, indar ikaragarriko irudi harrigarriak betetako obrak biak ere, Burroughsen irudimen nahasi eta mugagabearen fruitu oparoak.

Euskal literaturak beti ments izan duen idazle tipoa da Burroughs. Jon Mirande da, inor izatekotan, harekin nola edo hala konparatzeko modukoa, eta Ostiela! aldizkariaren izpirituan ere bada Burroughs gogoraz diezagukeen zerbait. Gainerakoan, lotsak, begiruneak eta muga kontziente zein inkontzienteek estuegi zedarritutako literatura da, oro har, gurea, transgresioetan ere ortodoxoa, heterodoxian ere koherente eta zintzoa, hizkuntzaren eta herriaren begirunean eta maitasunean sustraituegia askatasun eremu berrien esploraziorako. Horretan pentsatzeak areagotu egiten du, jakina, Burroughsen obrak euskaratuta irakurtzeko gogo oraindik ezin asea.

«Poetak prosa egile alferrak dira»

WILLIAM BURROUGHS izan zen Ipar Amerikan elkarrizketa gehien eskaini zuen idazlea. T.X. Erpe kazetaria Burroughsen 70. urtebetetzeko festan gerturatu eta zenbait galdera egin zizkion. Elkarrizketa *Quimera* aldizkariak argitaratu zuen orain urte batzuk. Momentu egokiak ez izan arren, Burroughsek ez zuen eragozpenik izan, eta kazetari espontaneoaren, kazetaria baino gehiago idazlearen jarraitzaile sutsua baitzen, galdera guztiei erantzun zien umore onez. 1984. urtea zen, eta Burroughsek hiru urte lehenago, 1981ean, utzi zion idazteari, baina idazteko erabiltzen zuen sistema hitz gutxitan azaldu zion galdeztzaileari: «Nik beti dut materiala soberan. *Cities of the red night* idatzi nuenean, adibidez, 600 bat orrialde nituen soberan eta hurrengo liburuan sartu nituen. *Dead toads*-en ere berdin, 700orri baitnituen soberan. Beraz, nik beti dut materiala hurrengo libururako; esan daiteke hurrengo liburua idazteko prozesua hasita dagoela aurrekoa amaitzen dudan une berean edo lehenagotik.

Naked lunch liburuaz hitz egiten ari zirela, Erpe liburu poetikotzat jo zuen, eta inoiz bere burua poetatzat hartu zuen galdetu zion Burroughsi. Poesiaren eta prosaren arteko mugak, ordea, ez zeuden batere argi idazlearentzat: «Poetak prosa egile alferrak direla uste dut, neurketa librea duen poesiaz ari garenean behintzat. Nahiko modu poetiko batean idatzitako edozein prosazko testu hartzen badugu, nahikoa da lerroak moztea poesia baten aurrean egoteko. Beraz, ez dut uste prosaren eta poesiarren arteko muga hain argia denik».

Homosexualitatea eta drogazaletasuna ezin alde batera utzi Burroughsekin hitz egitean, eta Erpe ere ezin izan zuen bi gaiok aipatzeko tentazioa ahaztu. Cyril Connollyk esan omen zuen behin homosexualen beste idazleek ez dituzten gaitasunak dituztela, eta Erpe horri buruz zer pentsatzen zuen itaundu zion Burroughsi. Burroughsek baieztapen horrekiko desadostasuna gogorki azaldu zion: «Ez dut inola ere uste hori horrela denik, nik ez dut orokortasunetan sinisten». Drogak ere azaldu ziren elkarrizketan, Erpe *porru* bat egin eta Burroughsi eskaini zion orduan, eta hauetxek izan ziren idazlearen hitzak: «Ez, eskerrik asko, goizegi da niretzat». Burroughs heroinazalea izan zen arren 1956ean uztea lortu zuen, hamaika aldiz saiatu eta gero. Hala ere inoiz ez zion utzi droga berriak frogatzeari, eta ahal-kola ere lagun handia zuen. X

Literaturara mundua ikusteko modu ezberdinen bila jotzen duenak, literaturan eguneroko bizimoduaren legeak eta azturak iruntzitar eta ipurdi bistan ikustea maite duenak, literaturaren bidez norberak oihukatu nahi eta ahapeka esaten ere ausartzen ez denekin topo egin nahi duenak, ez du zurrarik gabe irakurriko William Burroughsen literatura. Aurrean harrapatutako guztiak lotsarik gabe, begirunerik gabe, mugarik gabe hankaz gora jartzea maite baitzuen idazle zahar zendu berriak.

Ez da Burroughsen literatura aise eta eroso irakurtzekoa. Kontatutakoetan ez ezik, kontatzeko moduan ere lotsarik, begirunerik